

## **KONTROL MOZIOA**

### **INDARKERIA MATXISTAREN KONTRAKO UDAKO KANPAINA DELA ETA**

Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko ekainaren 11n, Pertsonen Zerbitzu Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Indarkeria matxistaren kontra elkarrekin aurre egin behar dugula zalantzarik ez dago. Instituzio publikoek, eragileek eta herritarrok dugu matxismoari aurre egiteko ardura.

Halaber, Udala herritar guztion gertuko administrazioa da, eta horrek, eredugarria izateko ardura emateaz gain, kudeatzen dituen baliabideak indarkeria matxistaren kontra eragiteko ardura ere ematen dio.

Azken urteetan aldiz, askatasun sexualaren kontrako erasoak gora egiten ari dira eta Udal Gobernuak ez du egoerak eskatzen duen arduraz erantzuten ari.

2016, 2017 eta 2018ko ikasturteetan, Berdintasunerako Kontseilu Sektorialean indarkeria matxistaren kontrako kanpainak balioetsi eta hobetzeko proposamenak egin dira. Horien artean, kanpainak urte osoan zehar zabaldu, eragileak eta herritarren parte hartzea sustatu eta udako kanpaina uda hasieran aurkeztearen proposamenak onetsi dira.

Azken hiru urteetan, aldiz, Udalak gero eta lehentasun gutxiago eman dio indarkeriaren kontrako ekimen eta kanpainak herritar eta elkarteekin batera indartu eta kohesionatzeari.

Honetaz interpelatuta, Udal Gobernuak ez du egoerari buelta emateko borondate sendorik agertu.

Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

### **KONTROL MOZIOA:**

- 1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari indarkeria matxistaren kontrako kanpaina eta ekimenetan, hiriko eragileen eta herritarren parte hartzea susta dezala.
- 2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari 2019ko indarkeria matxistaren kontrako udako kanpaina ekainean aurkez dezala.

3.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari berma ditzala hiriko auzo guztietako jaietan protokoloaren lanketa eta indarkeria matxistaren kontrako materiala.

Donostian, 2017ko ekainaren 15a

Naiara Sampedro Perez  
**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**